


1993 MAR. 07

EGUNKARIA



Ekitaldi euskaltzalea Korrikaren eskutik

Gipuzkoako Korrika Batzordeak Korrika 8ren aurkezpen ekitaldia egin zuen atzo eguerdian Astigarragako Gartziategi sagardotegian. Gipuzkoan euskararen alde ari diren zenbait herri ekimenetako partaideak gonbidatu zituzten aurkezpenera, besteak beste, EUSKALDUNON EGUNKARIAko zuzendari dugun Iñaki Uria, Joxe Javier Iñigo EKBko idazkaria, Hernaniko Euskara Taldekoak eta Donostiako Bagerakoak.